



argitaletxea edo!

P.K. 618 - 20080 Donostia - Gipuzkoa.
argitaletxeaedo@gmail.com
www.argitaletxeaedo.org



AZALEKO IRUDIA: GORKA SETIEN

Izenburua: Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak
Koordinatzaileak: Isa Castillo eta Iratxe Retolaza
Ezaugarriak: artikulua-bilduma. 318 orrialde. 14 x 21 cm
Hizkuntza: euskara
Argitalpen data: 2013ko uztaila
Lizentzia: Creative Commons
ISBN: 978-84-940489-5-1

Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak testu-bilduma gorputz ikusezinak ikusgarri egiteko urratsa baino ez da, isilarazitako gorputzei ahotsa emateko saio txiki bat baino ez. Horretarako, pentsamendu (trans)feministarantz hurbiltzen diren gogoetak eta ekarpenak bildu ditugu (subjektu feministak eta *trans* subjektuak bat egitea dakar transfeminismoak). Horrekin batera, ikusgarri egin nahi izan dugu, pertsona, jende, talde eta mugimendu ugariaren kezka-iturri dela (trans)feminismoa. Liburuko parte-hartzaileei erreparatuta, gainera, esparru hauetan jorratu da, batez ere, feminismoaren subjektuen inguruko kezka: mugimendu feminista, unibertsitatea, artea eta literatura. Are gehiago, arlo horietan lanean diharduten pertsonen zein kolektiboek elkarguneak eta solasguneak eraiki dituzte, eta horien arteko zubi-lana sendotu eta areagotu egin da. Egitasmo hau, azken batean, elkargune eta solasgune horien emaitza da, parte-hartzaileok mugimendu feminista, Jabekuntza Eskola eta Emakume Etxeetako sareetan ezagutu baitugu elkar.

Genero-ariketak liburuaren helburua ez da (trans)feminismoan ekarpen berriak egitea, ez eta testu esanguratsuenen bilduma egitea ere. Gogoeta egiten lagundu diguten ahotsak ekarri nahi izan ditugu, gure artean tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak eta liburuak aurkezten izan diren feministak. Horregatik, esperientzia pertsonaletatik pentsamendurantz doan ibilbidea proposatu dugu. «Baina gorputzak dio» atalean, hitza eman diegu gorputz baztertuen ahotsei. Bigarren atalean, «Baina ispiluak dio» izenekoan, hausnarketa eta iruzkin (trans)feminista zenbait bildu ditugu, geure gorputza irudikatze-ko ispilu berrietara jotzeko. Azkenik, «Baina pentsamenduak dio» ataleko testuek (trans)feminismoaren testuinguru eta eragin sozio-politikoez jarduten dute.

Azken atal bat ere proposatu dugu, «Glosategia». Pentsamendu (trans)feministan giltzarri diren zenbait kontzeptu bildu dira atal horretan, liburuan garaturiko iritziak, gogoetak eta pentsamenduak laburbiltzeko, horietan sakontzeko edo horiek auzitan jartzeko.



Egileak

Amaia Alvarez Uria

Judith Butler

Virginie Despentes

Amaia-Aimar Elozegi

Mari Luz Esteban

Ainhoa Güemes

Medeak

Raquel (Lucas) Platero

Beatriz Preciado

Javier Sáez

Itziar Ziga

Itzultzaileak:

Josebe Alkorta / Garazi Arrula / Irene Hurtado /

Miren Agur Meabe / Ainara Sarasketa Alberdi /

Asier Sarasola / Danele Sarriugarte / Iñaki Segurola

Koordinatzaileak:

Isa Castillo (Basauri, 1961). Haur Hezkuntzako ikasketak egin ondoren, irakasle aritu da hainbat urtez. Irakurle txoko zenbait gidatzen eta koordinatzen ditu Bizkaian (Iurreta, Durango, Markina-Xemein, Basauri, Igorre, Bermeo, Leioa, Ziortza, Bolivar...). Emakumeen Jabekuntza Eskola zenbaitetan ere irakasle (Ondarroa...) eta ikasle aritu da. *Skolastika* Literatur Zerbitzuetako partaidea da, eta *Sareinak* irakurle-taldeko kidea.

Iratxe Retolaza (Donostia, 1977). Euskal Filologiako ikasketak egin zituen, eta egun EHUko irakaslea da, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean. Donostiako Emakumeen Etxeko irakurle taldea gidatzen du, eta baita Irakurle Eskola feminista ere. Emakumeen Jabekuntza Eskola zenbaitetan aritu da irakasle (Ondarroa, Getxo, Basauri...) eta ikasle. Literatura eta feminismoa uztartzen dituen *Sareinak* taldeko kidea da, eta literatura kritika feminista du ikerlerroetariko bat.

